

INGURUMEN KONTUAK. INGURUMEN ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTUA. 2021

(Ohar hau berrikusi egin da, agregazio sektorialeko prozesuetan antzemandako akatsak direla eta)


Euskal AEko ingurumen-ekonomiaren balio erantsi gordinak % 7,5eko igoera izan zuen 2021ean

Enpleguari dagokionez, ingurumen-ekonomiak 21.384 enplegu sortu zituen, hau da, ekonomia osoan enpleguen % 2,3

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko ingurumen-ekonomiak 1.519 milioi euroko **Balio Erantsi Gordina (BEG)** sortu zuen 2021ean, hau da, BPGd-aren % 1,95. 2020. urtearekin alderatuta, ingurumen-arloko BEGaren urtetik urterako tasak % 7,5eko igoera izan zuen, hau da, ekonomia osoaren barne-produktu gordinak aldi berean izan zuen igoera (% 8,6) baino txikiagoa.

Ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen kontua (IOZK) Eurostaten metodologiari jarraikiz lantzen den ingurumen-kontuen sistemaren parte da. Kontu horiei esker, ekonomia- eta ingurumen-alderdiak koherentziaz integratu daitezke Kontabilitate Nazionalaren Sistemari. Ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen azpisektorea (ingurumen-ekonomia) **ingurumena babesteko** ondasunak eta zerbitzuak produzitzen dituen ekonomiaren atalak eta ingurumenaren gaineko presioak murrizteko edo desagerrarazteko **baliabide naturalak kudeatzeko** jarduerak osatzen dute.

Euskal AEko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, jarduera ekonomikoen arabera (p). 2021



(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Sektore ekonomikoak kontuan hartuta eta BEGari dagokionez, Zerbitzuak sektoreak egindako ekarpena nabarmendu zen 2021. urtean (% 28,3). Ondoren, honako sektore hauek kokatu ziren: Erauzketa- eta manufaktura-industriak (% 24,4), Ur-hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa (% 21,9), Eraikuntza (% 16,4), Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura (% 5,0) eta, azkenik, Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza (% 4,0).

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen Balio Erantsi Gordina, jarduera-taldean arabera (behin-behineko datuak). 2019-2021

	2019	2020	2021	Ingurumeneko BEGaren gaineko %			Urteko aldakuntza-tasa (%)	
	(milaka euro)	(milaka euro)	(milaka euro)	2019	2020	2021	2020/2019	2021/2020
Ingurumeneko BEG GUZTIRA	1.476.373	1.413.132	1.518.981	100,0	100,0	100,0	-4,3	7,5
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	50.307	39.171	60.383	3,4	2,8	4,0	-22,1	54,2
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	383.397	361.634	371.443	26,0	25,5	24,4	-5,7	2,7
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	86.684	79.329	75.473	5,9	5,6	5,0	-8,5	-4,9
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	315.992	296.470	332.538	21,4	21,0	21,9	-6,2	12,2
F: Eraikuntza	260.151	228.587	249.470	17,6	16,2	16,4	-12,1	9,1
G-U: Zerbitzu-sektorea	379.842	407.941	429.674	25,7	28,9	28,3	7,4	5,3
BGP m/p	79.537.107	71.828.616	78.038.814				-9,7	8,6

Data 2023ko Urriaren 31a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Denboran izandako bilakaera kontuan hartuta ikusten denez, sektoreren batean 2021eko **ingurumen-arloko BEGa** ez da hurbildu pandemiaren aurreko balioetara. Hori da *Erauzketa industriaren eta manufaktura* kasua, ingurumen BEGaren urte arteko hazkunde-tasa % 2,7koa izan arren, 2019rako zenbatetsitako balioen azpitik baitago oraindik. Era berean, *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire horniduraren* sektoreak – % 4,9ko urteko aldakuntza-tasarekin – eta *Eraikuntzak* – % 9,1eko hazkundearekin – ez dituzte aipatutako mailak berreskuratu. Era berean, pandemiaren aurretik edo gaineratik dauden sektoreak honako hauek dira: *Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza* (% 54,2ko urte arteko aldakuntza-tasarekin); *Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa* (% 12,2); eta, azkenik, *Zerbitzuak* (% 5,3)

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektoreko lanaldi osoaren baliokide diren lanpostuak, jarduera-taldean arabera (behin-behineko datuak). 2019-2021

	2019	2020	2021	Ingurumen-enpleguaren gaineko %			Urteko aldakuntza-tasa (%)	
				2019	2020	2021	2020/2019	2021/2020
Ingurumeneko DOB, guztira	21.336	20.939	21.384	100,0	100,0	100,0	-1,9	2,1
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	738	758	714	3,5	3,6	3,3	2,7	-5,8
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	5.557	4.985	4.791	26,0	23,8	22,4	-10,3	-3,9
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	48	58	56	0,2	0,3	0,3	20,8	-3,4
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	4.305	4.194	4.343	20,2	20,0	20,3	-2,6	3,6
F: Eraikuntza	4.475	4.141	4.494	21,0	19,8	21,0	-7,5	8,5
G-U: Zerbitzu-sektorea	6.213	6.803	6.986	29,1	32,5	32,7	9,5	2,7
Ekonomia osoaren lanaldi osoko baliokideak	974.811	914.369	939.512				-6,2	2,7

Data 2023ko Urriaren 31a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Sektore ekonomikoaren arabera, eta garrantziaren arabera, *Zerbitzuen* sektoreko **ingurumen-enplegua** ingurumeneko enplegu osoaren % 32,7 da; ondoren *Erauzketa eta manufaktura-industria* (% 22,4), *Eraikuntza* (% 21,0) eta *Ur-hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa* (% 20,3) daude. Era berean, guztizko ingurumen-enpleguari ekarpen txikiena egiten dioten sektoreak *Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza* eta *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura* dira, % 3,3 eta % 0,3, hurrenez hurren.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, jarduera-taldean arabera ((behin-behineko datuak). 2019-2021

	Ingurumeneko BEGd. BPGaren % gain			Ingurumeneko enplegua (lanaldi osoko baliokidea), guztizko enpleguan (lanaldi osoko baliokidea)		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021
Ingurumena, guztira	1,86	1,96	1,95	2,19	2,29	2,28
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	0,06	0,05	0,08	0,08	0,08	0,08
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	0,48	0,50	0,48	0,57	0,55	0,51
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	0,11	0,11	0,10	0,00	0,01	0,01
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	0,40	0,41	0,43	0,44	0,46	0,46
F: Eraikuntza	0,33	0,32	0,32	0,46	0,45	0,48
G-U: Zerbitzu-sektorea	0,48	0,57	0,54	0,64	0,74	0,74


Data 2023ko Urriaren 31a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Ingurumen-zifrak ekonomiaren guztizkoarekin erlazionatzen dituzten **adierazle nagusiak** kontuan hartuta, ingurumen-arloko BEGa 2021. urteko BPGaren % 1,95 izan da, eta ingurumen-enplegua, lanaldi osoko (LOB) lanpostu baliokideen arabera neurtuta, 2021eko LOB enplegu guztiaren % 2,28 da.

Europako gainerako herrialdeekin **alderatzeko**, Eurostatek 2020an argitaratutako azken datuak aztertu dira. Euskal AEko BPGren gaineko ingurumen BEGaren adierazlea % 1,96 da, Belgikakoa (% 1,67) edo Irlandakoa (% 0,98) baino ehuneko handiagoa, eta inguruko herrialdeetakoa (% 2,00) eta Alemaniakoa (% 2,39) baino txikiagoa. Datu horiek kontuan hartuta, Euskal AEko EB-27ko batezbestekoaren (% 2,53) azpitik kokatu da. Sailkapenaren goialdean, berriz, Finlandia (% 6,24), Estonia (% 4,97) eta Austria (% 4,38) daude.

Euskal AEko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, ingurumen-eremuen arabera (p). 2021



(p) behin-behineko datuak. Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Europako araudiari jarraikiz, bi esparru handi bereizten dira ingurumen-helburuaren arabera: **ingurumena babesteko jarduerak** eta **baliabideak kudeatzeko jarduerak**, elkarren baztertzailak direnak. Ingurumena babesteko jarduerak Babesteko Jardueren Sailkapenean (IBJS) deskribatzen dira, eta, bestetik, baliabideak kudeatzeko ingurumen-babeseko jarduerak Baliabideak Kudeatzeko Jardueren Sailkapenean (BKJS) deskribatzen dira.

2021ean ingurumenaren gaineko BEGan pisu handiena izateagatik nabarmentzen den eremua Beste BKJS batzuk da, % 26,1ekin, hau da, uraren, baso-baliabideen, fosilen eta mineralen kudeaketarekin lotutako jarduerak eta produktuak; ingurumen-kudeaketara bideratutako I+G; baliabideen kudeaketako hezkuntza; eta ingurumen-zuzendaritzarentzako laguntza. Nabarmentzekoak dira, halaber, hondakinen kudeaketarekin lotutako jarduerak eta produktuak (IBJS 3), ingurumen-balio erantsiaren % 21,8 hartzen baitu; energia eta beroa kudeatzea eta aurrezte (IBJS 13B), % 17,6; eta iturri berriztagarrietako energia-ekoizpena (IBJS 13A), % 13,7.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, ingurumen-eremuaren arabera (behin-behineko datuak). 2019-2021

	Ingurumeneko BEGd, BPGaren % gain			Ingurumeneko enplegua (lanaldi osoko baliokidea), guztizko enpleguan (lanaldi osoko baliokidea)		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021
(IBJS + BKJS) GUZTIRA	1,86	1,96	1,95	2,19	2,29	2,28
IBJS GUZTIRA	0,83	0,87	0,83	1,08	1,10	1,08
IBJS 1 - Airearen eta klimaren babesa	0,02	0,02	0,02	0,03	0,02	0,02
IBJS 2 - Hondakin-uren kudeaketa	0,10	0,10	0,08	0,09	0,09	0,08
IBJS 3 - Hondakinen kudeaketa	0,42	0,43	0,43	0,57	0,56	0,56
IBJS 4 - Lurzorua, lurpeko urak eta lurrazaleko urak babestea eta deskontaminatzea	0,03	0,03	0,02	0,05	0,05	0,04
BESTE IBJS BATZUK	0,26	0,29	0,28	0,34	0,38	0,38
BKJS GUZTIRA	1,03	1,09	1,12	1,11	1,19	1,20
BKJS 13A - Energia iturri berriztagarrien bidez ekoiztea	0,23	0,27	0,27	0,15	0,15	0,15
BKJS 13B - Energia/beroa kudeatzea eta aurrezte	0,34	0,33	0,34	0,45	0,45	0,49
BESTE BKJS BATZUK	0,46	0,49	0,51	0,51	0,59	0,56

Data 2023ko Urriaren 31a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Ingurumen BEGd-ak BPGri egiten dion ekarpenari dagokionez, baliabideak kudeatzeko jarduerak (BKJS) % 1,12ko ekarpena egiten dute; ingurumena babesteko (IBJS), berriz, % 0,83koa 2021ean. Ingurumen-enplegua aztertuta, BKJS baliabideen kudeaketari lotutako jarduerak dute pisu handiena guztizkoaren gainean: % 1,20, ingurumena babesteko IBJS jardueren % 1,08ren aldean. Zehazki, enpleguari ekarpen handiena egin zioten ingurumen-esparruak honako hauek izan ziren: Beste BKJS batzuk eta IBJS 3 – Hondakinen kudeaketa –, biak % 0,56rekin; eta BKJS 13B – Energiaren kudeaketa eta aurrezte/beroa –, % 0,49rekin.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62